

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Pauso bat gehiago,
basoen kudeaketa
publikorantz**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Euskara	943 25 18 83
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeko telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Natura 2000 sareko 88 hektarea gehiago, udalaren esku.....	3
Basoen biodibertsitatea babestea helburu	4
Elkarrizketa	6

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan daukazu Herritarren
Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak
atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu
edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian,
astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik,
ostegunetan izan ezik. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara,
etenik gabe ematen zaie zerbitzua herritarrei.

Natura 2000 sareko 88 hektarea gehiago, udalaren esku



2013. urteaz geroztik, Izarraitz mendikatea Natura 2000 sareko kontserbazio bereziko eremua da.

Lau herriren artean (Azpeitia, Azkoitia, Deba eta Zestoa) 1.600 hektarea inguruko eremua osatzen dute, eta horietatik 542 hektarea Azpeitiko lurretan daude.

Izarraizko Natura 2000 sareko lurrik gehienak jabetza pribatukoak dira, baina orain dela gutxi, beste urrats garrantzitsu bat egin du Azpeitiko Udalak: 88 hektarea eskuratu ditu, 228.000 euroko inbertsioa eginez. %12ko partaidetza duen jabeak batekin batera izango du eremu horren titulartasuna.

Baso horien kudeaketa publikoaren bidez, basoen kudeaketa jasangarria sustatu nahi du udalak,

biodibertsitatea erdigunean jarriz. Datozen hilabeteetan kudeaketa plan bat egingo du, baso bakoitzari egokitutako erabakiak hartzeko. Aurrera begira, ez du baztertzen baso gehiago erostea ere, izan Natura 2000 sareko eremuan, izan beste eremu batzuetan.

Lursail hauek lehendik udalak bereganatuta zeuzkan Natura 2000 sareko 221 hektareari gehitu zaizkie. Horrela, babes bereziko eremu horretako 309 hektarea daude gaur egun udalaren esku.

Udalak, aurrez, 221 hektarea dauzka bereganatuta Natura 2000 sarean



Basoen biodibertsitatea babestea helburu

Azpeitiko Udalak 88 hektareako azalera hartzen duten baso sailak erosi ditu Izarraitz mendikatean, ingurumenaren ikuspegitik balio estrategiko handiko inbertsioa eginez. Natura 2000 sarean daude eskuratu dituen basoak; hau da, babes bereziko eremu batean.

Gaur egun bizi dugun klima-larrialdiaren eta biodibertsitate-galeraren testuinguruan, Izarraizko baso horien kudeaketa jasangarria bermatu nahi du udalak. Helburua da basoak modu arduratsuan zaindu eta etorkizunerako babestea, eta udalak uste du esku publikoetan egoteak lagundu egingo duela kudeaketa planifikatuagoa eta eraginkorragoa egiten.

Izan ere, Nafarroan eta Araban ez bezala, Gipuzkoan eta Bizkaian basoen jabetza nagusiki pribatua da; baita Azpeitian ere. Jabe txikiak dira gehienak, hau da, hektarea gutxi batzuk dituzte beren esku. Horrekin batera, jabeen batez besteko adina altua da,

eta jabe horien ondorengoek basogintzari buruzko ezagutzarik ez dute izaten askotan. Horrek guztiak hainbat ondori negatibo ekar ditzake; besteak beste, mendiaren abandonua.

39 jabekiderekin akordioa


Izarraizko eremuan, zazpi familiatako 39 jabekiderekin lortu du akordioa udalak, eta guztira 228.038 euroko inbertsioa egin du 88 hektareako lursail azalera eskuratzeko. Erositako basoetan, era askotako landaredia dago gaur egun, hala nola hostozabalak, koniferoak, sastrakak eta larreak.

Behin salerosketa kontratuak sinatuta, kudeaketa plan bat egitea izango da udalaren hurrengo urratsa, basoz baso erabakitzeke zein izan daitekeen aukerarik onena bakoitzean. Kudeaketa plan horren ostean, erabakietako bat izan daiteke esku hartzerik ez egitea, naturari bere bidea egiten uztea delako egokiena biodibertsitatearentzat.

Udalak egindako kalkuluen arabera, 220 tona kutsadura xurgatzeko gaitasuna dute eskuratu dituen basoek

Karbono xurgatzaile naturalak

Basoek airea garbitzen dute, kutsadura (CO₂) bereganatzen dutelako. Hain zuzen, karbonoaren xurgatzaile natural garrantzitsuena dira. Udalak erosi dituen lur horiek urtean 220 tona kutsadura inguru irentsi ditzakete. Kontuan izanda Udalak iaz 319 tona isuri zituela (gasa eta erregai fosilak erabiliz, batez ere), baso hauek Udalak sortzen duen kutsaduraren %69 inguru garbituko lukete. Ekimen honen bidez, Azpeitiko Udalak argi utzi du tokiko administrazioek ere zeregin garrantzitsua dutela klima aldaketaren aurkako borrokan, eta basoen kudeaketa publikoa tresna eraginkorra dela etorkizun jasangarriago baterantz aurrera egiteko.





JOANES AMENABAR

—
Ingurumen batzordeburua

“Biodibertsitatearen ikuspegitik, oso baliotsua izan daiteke baso hauetan esku hartzerik ez egitea ere”

Nondik nora erabaki du Azpeitiko Udalak Izarraitz mendikatean basoak erostea?

Aurreko agintalditik dator kontua. Udalak jakin zuen Izarraizko baso jabe batzuk beren lursailekin zerbait egin asmotan zebiltzala, hainbat aukera aztertzen ari zirela. Eremu estrategikoa izanik eta baso horiek mantentzeko nahiak bultzatuta, udala eta jabeak harremanetan jarri ginen, eta hortik sortu zitzaion udalari lursail horiek erosteko aukera. Jabe asko izanda, bere denbora eskatu digute tramitazioek, baina ia zoko urte amaieran sinatu genituen kontratuak.

Zergatik nahi zituen udalak baso jakin horiek?

Arrazoi nagusietako bat da baso horiek Natura 2000 sarean daudela, hau da, balio ekologiko handiko babestutako eremu batean. Babestuta egoteak, berez, badakar kontrol bat, baina gure ustez egokiagoa da halako lurak esku publikoetan egotea. Horrela, kudeaketa jasangarriagoa eta koherenteagoa egin daiteke, interes pribatuen gainetik interes orokorra lehenetsiz.

Biodibertsitatearentzat estrategikoak diren eremuak bere horretan mantentzeak ahalegin bat eskatzen du. Partikularrei edo baserritarrei ahalegin hori egitea eskatzea zilegi izan daiteke, baina kontuan izan behar dugu eskari horrekin batera diru iturri batzuei uko egitea eskatzen ari garela. Horregatik, gure ustez, erakunde publikoak sartu behar dugu biodibertsitatearentzat estrategikoak diren eremu horietan; eremu horiek bere horretan mantentzeak eskatzen duen esfortzua egitea dagokigu.

Udalak zer egiteko asmoa du baso horiekin?

Aurten bertan kudeaketa plan bat egingo dugu. Plan horrek zehaztuko du baso bakoitzean zer egin daitekeen.


Zein izan daitezke aukerak?

Aukeretako bat izan daiteke ezer ez egitea eta basoari bere kabuz garatzen uztea. Europako jarraibideek esaten dute lurrazal eremu osoaren %10 gutxienez ukitu gabe mantentzea komeni dela; hau da, bioaniztasunaren ikuspegitik, oso baliotsua izan daiteke Izarraizko baso hauetan esku hartzerik ez egitea.

Eta esku hartzeren bat egitekotan?

Lurra esku publikoetan egoteak bertako espezieen landaketak hedatzeko aukera ere emango digu. Jabe pribatuek esplotazioan jarri izan dituzten sailetan, pinua izan da nagusi azken urteetan, eta gero eta gehiago ari da zabaltzen eukaliptoaren ere. Guk, ordea, bertako baso ereduari eman nahi diogu lehentasuna, biodibertsitate handiagoa eta ekosistema osasuntsuagoak bermatzen dituelako. Kudeaketa planak aukera gehiago ere aztertuko ditu: adibidez, mozketa selektiboak egitea. Euskal Herriko udalerrri batzuetan, udalek basoetatik ateratzen den egurra herritarren artean banatzen dute edo energia sortzeko erabiltzen dute.

“Lurra esku publikoetan egoteak bertako espezieen landaketak hedatzeko aukera ere emango digu”



Aurrera begira, udalak badu lur gehiago erosteko asmorik?

Bai. Natura 2000 sareko lurrekin hasi gara, baina etorkizunean beste lursail batzuk eskuratzeko prestutasuna ere badugu. Garai batean lur horietako asko publikoak ziren, baina udalen zorren ondorioz, herritarren eskuetara pasa ziren. Orain, kontrako bidea egin nahi dugu, berriz ere lur horiek instituzio publikoen esku jarriz, herritarren mesederako. Araban eta Nafarroan, esaterako, lur komunalen tradizio handia dago. Guk ere antzeko bide bat jorratu nahi dugu, ahal den neurrian.



Energia Bulegoa

943 11 98 06

energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus